

INAUTERIAK SEGURAN: HARTZAREN FESTA

INFORMAZIO ITURRIAK:

-Festa hau ezagutu zuten herritarrengandik:

Ohitura hau bizi izan zuten herritarrak 70 urte ingurutik gorakoak dira. Ondorioz, zera esan daiteke: gerra zibilaren ondoren, Francoren errejimenerako lehen urteetan utzi zitzaioela festa hau ospatzeari.

Frankismoak debekatu egin zituen ihauteriak ('Se prohibe todo acto que recuerde carnaval' esaldia famatua izan omen zen). Beraz, esan daiteke, orain 60 urte inguru egingo zela azken aldiz festa hau Seguran.

-Festa ezagutu zutenei jasotakoak:

-Herritar bat, ardilarruak erabiliz hartz mozorrotzen zen. Hartz hau gerritik soka batez loturik eramaten du kalez kale hartza zain batek. Hartzak jendea erasotzen du eta hartzazainak eusten dio nolabait.

-Hartzazainak esku batean soka eta bestean makila latigo moduko batekin darama. Hartza, basatia denez, egon ezinda eta lurretik bueltaka ere ibiltzen da. Ingurukoek ondorengo ohiukatzen zioten

'Hartza, hartza, hartza!
Mariana, riana, riana!

-Hartzarekin batera, jorrai dantzariak eta txistulariak doaz. Herriko puntu ezberdinetan geldialdiak egiten dituzte 'zahagi dantza' eginez.

-Kantu eskea egiten zen akordeoia joz eta abestuz.

-Txistulariek inauterietako zortziko berezia jotzen zuten (ez da ezagutzen) eta zahagi dantzariak ondorengo abesten zuten:

'Ai zagie, zagie, zagie,
ai zagie puztue!
Ai zagie, zagie, zagie,
ai zagie puztue!
Aspaldi hontan ez haut jorratu,
orain badauket premie!'

Argazki batetik:

1971ko San Joanetan “Euskal parada” egin zen. Herritarrak motibo ezberdinez mozorroturik desfilatu zuten kalez kale. Argazkian, hartzazain lanetan Rafael Izagirre zena agertzen da, honek festa ezagutu eta izi izan zuen.



INAUTERIETAKO PERTSONAIA HONEN ESANAHIA:

Udaberriaren mezularia

Hartzak negua lotan (hibernatzen) igaro du. Udaberriaren etorrerarekin hartzulotik ateratzen da. Pertsonaia honen esnaerak, beraz, neguaren amaiera eta izadiaren berpiztea adierazi nahi du.

Euskal baserritarrak negute luzean pasatako estuasunen ondoren, alaitasunez agurtzen zuten udaberriaren mezulari zen hartz gordelektutik irten berria.

‘Martxoan irteten da hartz leizezulotik’ dio esaera zaharrak. Nekazariak beldur gehiago zieten negu azkeneko hondar gaiztoei, jakien azken gordekinak agortzeaz zeudenean, edozein piztiari baino.

Udaberriaren etorreraren sinboloetako bat da, beraz, hartz. Etorrera hau ospatu egiten da eta zer hobeto hartzarekin berarekin baino.